

# Enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntza.

## OINARRI ARAUTZAILE bateratuak

### **Deialdiaren oinarriak**

#### **1. Xedea.**

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen xedea da finantzabidea ematea langile autonomo gisa edo beren konturako langile gisa kidetuta eta jarduera horretan aldi batez aritzen diren langabeei.

#### **2. Onuradunak.**

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko agentzietako batean enplegu eskatzaile gisa inskribatuta dauden langabeak izanen dira oinarri arautzaile hauetan aipatzen diren dirulaguntzen onuradunak, Nafarroako Foru Komunitatean langile autonomo gisa edo beren kontura lan egiten hasi eta Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian edo lanbide elkargoen mutualitatean kidetzen direnean.

#### **3. Onuradunek bete beharreko baldintzak.**

1. Onuradunek betebeharrak orokor hauek izanen dituzte:

a) Langabezian eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko agentzietako batean enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea jarduera hasten duen unean.

b) Langile autonomoen araubide berezian edo lanbide elkargoen mutualitatean kidetzea. Alta-data jardueraren hasiera-data gisa hartuko da. Era berean, alta hartu beharko dute jarduera ekonomikoen gaineko zergan, jarduera ekonomikoa non bete behar duten, bertako udalean. Ondasun erkidegoak edo sozietate zibilak osatzen dituztenean izaten ahalko dira onuradun langile autonomoak edo beren konturakoak, baldin eta dirulaguntzak nork bere izenean eskatzen badituzte.

2. Aurretik ezarritako betebeharrak gain, ondoko talde hauek beste hauek ere bete beharko dituzte langile autonomoen araubide berezian edo kasuko lanbide elkargoen mutualitatean kidetzen direnean:

a) Desgaitasuna duten langileek: ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua izatea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

b) Gizarteratze errenta edo antzeko laguntza jasotzen dutenek: prestazio horren onuradun izatea.

c) Iraupen luzeko langabeek: langabezian izena emanik egotea eta langabeak izatea langile autonomoen araubide berezian alta eman aurre-aurreko 12 hilabeteetan jarraian.

d) Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek: izaera hori frogatzea Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen xedatutakoarekin bat.

3. Ezin izanen dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan aipatutako egoeraren batean dauden pertsonak.

#### **4. Onuradunaren betebeharrak.**

1. Dirulaguntza hauen onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako beharkizun orokorrak eta oinarri hauetan aipatzen diren gainerakoak bete beharko dituzte.

Berariaz, laguntza ematen duen organoak edo horretarako eskumena duen edozein organok egin beharreko egiaztapen eta kontrol jarduketak onartu beharko dituzte, eta jarduketa horien ondorioz eskatzen zaion dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute. Halaber, Europar Batasuneko aurrekontuarekin kofinantzatutako laguntza bat jasotzeagatik egin daitezkeen kontrolak onartu beharko dituzte. Kontrol horiek Nafarroako Gobernuak, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak edo Europar Batasuneko beste kontrol-organo batzuek egiten ahal dituzte.

2. Horrekin batera, Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian edo lanbide elkargoen mutualitatean kidetuta egon beharko dute 18 hilabetez jarraian, langile autonomoen araubide berezian edo lanbide elkargoen mutualitatean kidetu ziren egunetik hasita.

Jarduerari eusten zaiola eta langile autonomoen araubide berezian alta emanik dagoela egiaztatzeko lanak ofizios beteko ditu Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak. Lanbide elkargoaren mutualitatean alta emanik daudenen kasuan, dirulaguntzaren onuradunari kasuko mutualitatearen ziurtagiria eskatuko zaio, alta emanik segitzen duela frogatzeko. Halere, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarduerak egiaztatzeko bisitak egiten ahalko ditu negozioa dagoen helbidera joanda.

Halaber, aldi horretan debeku izanen dute merkataritzako sozietate, kooperatiba edo lan sozietateetako bazkide bihurtzea, ez eta langile autonomo laguntzaile ere, eta ezin izanen dute Nekazaritzako Araubide Berezian alta eman edo salgaien errepide-garraioan aritu.

3. Dirulaguntzaren onuradunek Nafarroako Gobernuaren lankidetzari buruzko publizitatea egin beharko dute urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuan ezarritako moduan. Betebehar horri lehen aipatutako 18 hilabeteko epean eutsi beharko zaio.

Era berean, egiten duten jarduketaren publizitatean Nafarroako Foru Komunitateko EGEF 2014-2020 Programa Eragilearen bidezko kofinantzaketa adierazi beharko dute.

EGIFen ekarpena jendaurrean paratzea, web-orrian ondoko esaldia ikusgai jarritz, diruz lagundutako proiektuak irauten duen bitartean gutxienez:

"Enpresa honek laguntza jaso du, EBko REACT baliabideek %100ean konfinantzatua, Nafarroako EGEF 2014-2020 Programa Operatiboaren bidez, COVID-19aren pandemiaren aurrean Europako Batasunak izandako erantzunaren zati gisa". Esaldi hau ondoko logotipo honekin batera agertuko da:



Fondo Social Europeo: "Europa invierte en tu futuro"  
Europako Gizarte Funtzak: "Zure etorkizunean inbertitzen du"

Financiado como parte de la respuesta de la Unión a la  
pandemia de COVID-19

Era berean, DIN A3 neurriko kartel bat ikusgai jarri beharko du, proiektuak irauten duen bitartean gutxienez.

Halaber, EB 1303/2013 Erregelamenduaren 140. artikuluan ezarritakoarekin bat, eragiketen frogagiriak 3 urtez gorde beharko dituzte, data honetatik hasita: eragiketako gastuen kontuak aurkeztu eta hurrengo abenduaren 31tik aurrera.

Horrez gainera, kontabilitate sistema bereizi bat izan beharko dute, edo kontabilitate kode egoki bat, diruz lagundutako proiektuarekin zerikusia duten transakzio guztiei dagokienez. Halaber, iruzurrari aurre egiteko neurri eraginkorrak eta proportzionatuak aplikatu beharko dituzte kudeaketaren eremuan: kalitate kontrola eta gardentasuna kontratazioan, egon daitezkeen interes-gatazken kontrola, egon daitezkeen faltsifikazioen kontrola, etab.

4. Betebehar horiek betetzen ez badituzte, jasotako dirulaguntza guztiak itzuli beharko dituzte, berandutze-interesak barne, non ez den onuradunaren heriotza, ezintasun iraunkor osoa, erabatekoa edo baliaezintasun handia gertatzen. Ez da izanen Gizarte Segurantzaren baja emateko edo jarduerari uzteko arrazoi justifikatua arrazoi ekonomikoengatik hura uztea edo amaitzea.

Onuradunak betebeharrak ia osorik bete dituenean eta zalantzarik gabe bere konpromisoak burutzeko jarrera frogatzen duenean, itzuli beharreko dirua aurreko atalean aipatzen den proportzionaltasun irizpideari jarraikiz zehaztuko da. Berariaz, 18 hilabetez jarraian Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian edo lanbide elkargoen mutualitatean alta emanik egoteko eta dirulaguntzaren xede izandako jarduera ekonomiko berari eusteko betebeharrei dagokienez, itzulketa partzial bat egingen da, soilik, betebehar hori gutxienez 9 hilabetez bete baldin bada jarraian, eta betiere 18 hilabeteko aldia betetzeko falta denarekin proportzioan, berandutze-interesak barne.

#### **5. Emateko prozedura.**

Oinarri arautzaile hauetan aipatzen diren dirulaguntzak emateko prozedura banakako ebaluazioaren bidez tramitatuko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Legearen 17.1 artikuluan xedatuarekin bat.

#### **6. Dirulaguntzen lehiakortasuna.**

Oinarri arautzaile hauetan aipatzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako ematen diren beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin.

#### **7. Baztertzeko arrazoiak.**

Halaber, lanean hasi baino lehenagoko lau urteetan, langile autonomo gisa edo beren kontura, jarduera bera edo antzekoa egin duten langileak ere baztertuko dira. Era berean, deialdi honen babesean dirulaguntza jaso dutenek ezin izanen dute beste laguntzarik jaso 18 hilabete iragan arte langile autonomoen araubide berezian alta eman zuten egunetik, dirulaguntza emateko baliatu zen horretatik.

Merkataritza sozietateetako, kooperatibetako eta lan sozietateetako bazkideak eta autonomo laguntzaileak ere bazterturik egonen dira. Halaber, bazterturik egonen dira Nekazaritzako araubide berezian beren kontura alta ematen dutenak eta langile autonomoen araubide berezian salgaien errepide-garraioan aritzeko alta ematen dutenak.

#### **8. Zenbatekoak.**

Dirulaguntzen zenbatekoak honakoak izanen dira, talde desberdinetan bereizita:

a) Oro har: 2.000 euro.

- b) 30 urteko gazteak eta hortik beherakoak: 2.200 euro.
- c) 45 urtetik gorakoak: 2.200 euro.
- d) Iraupen luzeko langabeak: 2.200 euro.
- e) Emakumezkoak: 2.500 euro.
- f) Desgaitasunen bat duten pertsonak: 3.000 euro.
- g) Gizarteratze-errenta edo antzeko prestazioa jasotzen dutenak: 3.000 euro.
- h) Genero indarkeriaren biktima diren emakumezkoak: 3.500 euro.

Onuradun bat aipatutako taldeetako batean baino gehiagotan egonez gero, zenbateko handienari dagokion dirulaguntza emanen zaio.

Bere konturako langileak edo langile autonomoak lan egiten duen udalerrian, jardueraren hasieran, eguneratutako udal erroldan 5.000 biztanle baino gutxiago badaude, langile horrek 1.000 euro gehiago jasoko ditu.

Laguntza gehigarri hori jaso ahal izateko, bere konturako langileak edo langile autonomoak betekizun hauek bete beharko ditu:

- 1) Alta emanda egon behar du ekonomia-jardueren gaineko zergan, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udal errolda duen udalerrri batean.
- 2) Negoziorako lokalik ez duten eskatzaileen kasuan, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udal errolda duen udalerrri batean erroldatuta egon beharko dute eta gutxienez urte bateko antzintasuna izan beharko dute jardueran.

Jarduera 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri batean garatzen duten langile autonomoek, 4. oinarrian ezarritako betebeharrak orokorrak betetzeaz gainera, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri horretan inskribatuta egon beharko dute ekonomia-jardueren gaineko zergan, 18 hilabetez, etenik gabe, Langile Autonomoen Araubide Berezian edo dagokion mutualitatean alta ematen dutenetik zenbatuta. Betekizun hori betetzen ez bada, bere konturako langileak edo langile autonomoak itzuli egin beharko du 1.000 euroko dirulaguntza hori, osorik, udalerrri horretan EJZn alta eman zuenetik 9 hilabete edo gutxiago igaro badira. Bestalde, zati bat itzuli beharko du 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri horretan EJZn 9 hilabetez edo gehiagoz egon bada alta emanda, etenik gabe. Itzuli beharreko kopurua 18 hilabeteko epea bete arte falta den denboraren arabera zehaztuko da, modu proportzionalan. Kasu bietan, berandutze-interesak ere ordaindu beharko dira.

Oinarri honetan adierazitako kopuruak kostu unitarioen baremo estandar bat aplikatuta kalkulatu dira, Europako Gizarte Funtsaren 1304/2013 (EB) Erregelamenduaren 14. artikulua 1. apartatuaren arabera ezarritako kostu unitarioen baremo estandarrei eta oroharreko zenbatekoei buruzko jarraibideen dokumentuaren 4. apartatua aplikatuta, eta 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 67. eta 68. artikuluekin bat etorrira”.

### **9. Aurkezteko epea.**

Dirulaguntzaren eskaera aurkezteko epea hilabetekoa izanen da jarduera hasi eta biharamunetik hasita, hau da, langile autonomoen araubide berezian edo kasuko lanbide elkargoaren mutualitatean alta eman

zuen egunaren biharamunetik hasita, gastuaren baimena argitaratu bada betiere. Bestela, epea hilabetekoa izanen da baimen hori ofizialki argitaratu eta biharamunetik hasita.

Aurrekontu ekitaldi bakoitzaren kargura izanen dira aurreko urteko azaroaren 1etik abian den urteko urriaren 31ra bitarte langile autonomoen araubide berezian edo dagokion mutualitatean egindako altei dagozkien eskaerak.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko".

Jardueraren hasiera-data 2023ko abuztuaren 31 baino lehenagokoa duten autonomoei soilik emanen zaie dirulaguntza."

### **10. Instrukzioa, tramitazioa eta ebazpena.**

1. Prozedura alde batek eskaturik hasiko da, interesdunak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzura igorritako eskaeraren bidez.

2. Eskaerak telematika bidez aurkeztuko dira, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian ([www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus)), dagokion fitxa erabiliz (laguntzen fitxa).

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Subvenciones-para-la-promocion-del-empleo-autonomo>

Dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari dagokio.

3. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, norberak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko

b) Helburu bererako lortu edo eskatutako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen erantzukizunpeko adierazpena; bestela, horrelakorik eskatu ez dela dioen adierazpen espresa. Orobat, "de minimis" araubidearen barnean dauden adieraziko da.

c) Alta, jarduera ekonomikoen gaineko zergan.

d) Hala badagokio, jarduera profesionala lokal batean egiten dela frogatzen duten agiriak (alokairuaren kontratua, eskriturak...).

e) Kasu bada, dagokion lanbide elkargoaren mutualitatean alta emanik dagoela frogatzen duen agiria.

f) Enpresa proiektuari buruzko memoria laburra.

g) Bidezkoa bada, desgaitasunak dituen pertsona dela frogatzea, 3.2 b oinarrian xedatu bezala.

h) Kasua bada, genero indarkeriaren biktima dela frogatzen duen agiria, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean xedatutakoarekin bat.

i) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera.

j) Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskatzen duen beste edozein agiri.

a), b) eta f) letretan aipatzen diren aitortpenen eta memoriaren ereduak [www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus) web-orrian eskuratzen ahal dira."

4. Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Kudeaketako Zuzendaritzak erabakiko du dirulaguntzak eman edo ukatzea.

Ebazpen hori gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, eskaera tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen denetik hasita. Ebazpen espresik jaso gabe epe hori iraganez gero, aurkeztutako eskabidea ezetsizat hartzen ahal da isiltasun administratiboa dela medio.

Ebazpenak ez du administrazio bidea amaituko. Horregatik, gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahalko da haren kontra Eskubide Sozialetako kontseilariari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

### **11. Justifikazioa eta ordainketa.**

Dirulaguntza ordaindu aurretik, onuradunak frogatu beharko du ezarritako baldintzak betetzen dituela eta dirulaguntza emateko oinarri den jarduketa egin duela.

Dirulaguntza eman ahal izateko, onuradunak eguneratuak izan beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Aurrekontuan krediturik ez izatea dirulaguntza ukatzeko arrazoia izanen da.

### **12. Dirulaguntza emateko ebazpenaren aldaketa.**

Dirulaguntzak emateko kontuan harturiko baldintzen aldaketa orok dirulaguntza emateko ebazpena aldaraztea ekartzen ahalko du eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza itzultzea.

### **13. Publizitaterako arauak.**

Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko dira emandako dirulaguntzak, hauek zehaztuta: deialdia, laguntza aurrekontuko zein programari eta kredituri egotziko zaion, onuraduna, emandako dirukopurua eta dirulaguntzaren helburua.

Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak ere argitaratuko ditu datu horiek bere web-orrian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeak berekin ekarriko du inplizituki onartzea enpresa sartuko dela Europako Gizarte Funtza Administrazteko Unitatearen webgunean (<https://www.mites.gob.es/uafse/>) argitaratuko den zerrenda batean, programa eragilea kudeatzeko agintaria den aldetik. Zerrenda horren argitalpenaren helburua da gardentasunez jokatzeko EGEF baliabideen aplikazioari eta helburuari dagokienez, 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) 115.2 artikuluan xedatu bezala.

### **14. Itzulketa.**

1. Dirulaguntza emateko ebazpena baliorik gabe uzteko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 34. artikuluan aipatzen diren arrazoiez gain, kobratutako dirua osorik edo hein batean itzuli beharko da, eta berandutze-interesak ordaindu, dirulaguntza eman zenetik hori itzuli behar dela erabaki arte, foru lege horren 35. artikuluan aipatzen diren kasuetan.

2. Ez-betetze partzialak gertatzen badira, organo eskudunak zehaztuko du onuradunak itzuli beharreko zenbatekoa, proportzionaltasun-printzipioa betez, jardueran emandako denboraren arabera, 4.4 oinarrian xedatutakoaren arabera.

3. Dirulaguntzak itzultzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

**15. Zehapen prozedura.**

Itzultzeko espedientea tramitatu eta gero, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. tituluaren tipifikatutako arau-hausteren bat antzematen bada, foru lege horretan ezarrita dagoen prozedurari ekinen zaio.

**16. De minimis araubidea.**

Dirulaguntza hauek de minimis araubidearen mende daude, Batzordeak abenduaren 18an emandako 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Erregelamendua).

**17. Aplikatu beharreko araudia.**

Oinarri arautzaile hauetan xedaturik ez dagoen guztian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari lotuko zaio.

Laguntza hau Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatu denez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamendua aplikatuko zaie. Haren bidez, xedapen komunak ezarri ziren Eskualde Garapeneko Europako Funtsez, Europako Gizarte Funtsez, Kohesio Funtsez, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsez eta Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsez, eta xedapen orokorrak ezarri ziren Eskualde Garapeneko Europako Funtsez, Europako Gizarte Funtsez, Kohesio Funtsez eta Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsez, eta indarrik gabe utzi zen Kontseiluaren 1083/2006 (EB) Erregelamendua.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko (EB) 2020/2221 Erregelamendua, 1303/2013 Erregelamendua (EB) aldatzen duena, baliabide gehigarriei eta betearazteko xedapenei dagokienez, COVID-19aren pandemiaren eta haren ondorio sozialen testuinguruan krisia onbideratzen laguntzeko eta ekonomiaren suspertze berdea, digitala eta erresilientea prestatzeko (REACT-EB).

**18. Indarra hartzea.**

Ebazpen honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.